

Mendialdeko Azoka Ibiltaria: ARESOn txanda.

Igande honetan (hilak 13) izanen da eta, azokarekin batera, bertako herritarrek egindako lanabes tradizionalen erakusketa ere izanen da.

Udazken betean sartuta, Mendialdeko Azoka Ibiltariaren 5. edizioak bere azken merkatuei eutsiko die. Oraingo honetan, Areso herriak hartuko du 2024rako programaturako 9 azoken zazpigarren jardunaldia.

Mendialdea eskualdeko baserriarrek eta artisauek egindako sasoiko produktuak sustatu, ikusarazi eta saltzeko helburuarekin sortatuko ekitaldi honen filosofiak bere horretan jarraitzen du: modu jasangarri eta arduratsuan ekoizitako tokiko produkturik onenak, bereziki eskualdeko lehengaiekin egiten direnak, sustatzen eta zuzenean saltzen laguntzea. Hori guztia, gure lurraldeko ingurumenarekiko, paisaiarekiko, ekonomiarekiko eta kulturarekiko kontsumo arduratsua eta kontzientea sustatuz.

Lanabesen erakusketa

Izan ere, merkatu hauetan parte hartzen duten artisauen postuak gure zonaldeko nekazaritzaren eta abeltzaintzaren kultura eta praktiken isla dira, Mendialdean oraindik errotuta dagoen eta bertako tradizioa eta ohiturak oso presente dituen bizimodua definitzen dutenak.

Horregatik, Aresoko herritarrak gogoz aritu dira lanean baserrietan erabili ohi diren lanabesak biltzeko. Horrela bai abeltzaintzan eta nekazaritzan, baita elikagaiak eta artisau-tresnak egiteko ere erabiltzen ziren hainbat erreminta eta lanabes bildu dituzte.

Gehienak dagoeneko ez dira erabiltzen, baina baserrietako ganbaretan edo ukuiluetan gorderik mantendu izan dituzte. Igandeko erakusketaren bidez, aresoarrek baserrietako praktika zaharrak gogoratu eta, nolabait ohoratu nahi izan dituzte, beti ere, gure sustraiak eta jasotako ondarea ez ahaztuzeko helburuarekin..

Erakusketa azokako eremuan bertan izanen da (eguraldi txarra izan ezkeru, Udaletxeko areto nagusian sartuko da).

Mendialdeko Azoka Ibiltaria

Aresok antolatutako azoka honekin, apurka, 2024ko edizioko merkatuen egutegi-ari amaiera ematen zaio. Horrela, Aresokoa pasata, ondorengo azoka izanen dira hemendik abendura arte :

- Azaroak 3: Jauntsarats (Basaburua) + Gaztain Eguna
- Abenduak 1: Betelu + herriko helduei omenaldia.

Guztira, **23 postu egonen dira Aresoko plazan**. Nekazaritzako elikagaien 11 postu: gazta, taloa, hestebeteak, pateak, haragia, arrautzak, artisau-garagardoa, etab. Eskaintza honi, eskualdeko artisauen 12 artisautza postu gehitu behar zaizkio: zura, zeramika, metala, ehungintza, etab.

Modu jasangarri eta arduratsuan egindako tokiko produkturik onenen eskaintza izanen dugu Areson, zonaldeko lehengaien erabilera bereziki baloratzen duena. Azoka honen bidez, gainera, landa-eremuko ingurumenarekin, aisiarekin, ekonomiarekin eta kulturarekin arduraz jokatzeko duen kontsumoa sustatu nahi da. **Azokaren jende-aurreko ordutegia 11:00etatik 14:30era izanen da.**

Aresoko Udalak antolatu du, CEDERNA, Habelarte eta Plazaola Partzuergo Turistikoaren laguntzarekin.

Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen du.

Areso, 2024ko urriaren 7a